

Naia Aiestaran Iparragirre

A maila • 1 saria

Omenaldi baten moduko zerbait da irakurtzeaz zauden narrazioa. Omenaldi bat ametsak egia bihur daitezkeela sinesten dutenei, eta egia bihur daitezen salto egiteko ausardia dutenei. Omenaldia familia, etxea, bizitza osoa atzean utzi, eta salto egiteko ausardia dutenei.

Omenaldi bat da negarrari eusten dion amari, alaba badoalako, salto egingo duelako eta bere ametsak beteko dituelako.

Omenaldi bat aitari, beldur denari, baina bizia emango lukeenari alabak benetan bizitzeko aukera izan dezan. Salto egin dezan.

Eta omenaldia hesien arantzetan kateatuta gelditzen diren galtza zatiei, hesietan behera irrist egiten duten malko eta odol-tanten jabeei.

Naia naiz. 17 urte ditut eta duela gutxi ireki nituen begiak. Sariak baino ilusio handiagoa egiten dit jakiteak nire moduko beste norbaitek hau irakurri eta agian begiak irekiko dituela, benetako mundu krudelaz jabetu eta, agian, bere hazitxoak jartzen saiatuko dela.

Ni zoriontsu izango naiz irakurle baten barruan zerbait mugitzea lortzen badut.



SALTO!

Salto! Hesia igo, eta salto! Lau oinean hurbildu, hesia igo, eta salto!

Iritsi da azken hamar urteetan hainbestetan errepikatutako 3 pausoak praktikan jartzeko unea. Gaur da eguna. Gaur eta orain. Aurki desagertuko da guztiz eguzkia, eta zerua erabat beltz jantzen den momentuan hasiko da guztia. Ilargi beteak gidatuko nau.

Gaurkoa ilunabar zoragarria izan da. Inoiz ikusi dudana zoragarriena, beharbada. Edo, beharbada, egoerak bihurtu du ilunabarra inoiz ikusi dudana ilunabarrik zoragarriena. Sutan zegoen zerua, eta bakea sentitu dut. Izugarrizko bakea. Nire etorkizuna irudikatzen hasi naiz; txikia nintzela oherakoan aitari belarrira erreztatzen nion etorkizun berbera irudikatu dut: *Ballet-dantzaria izango naiz, baina ez edonolokoa, baizik eta milaka auditorio jendez betetzen dituzten horietakoa. Eta lortutako diruarekin, gehien behar dutenei lagunduko diet, baina zatitxo bat niretzat, nire senararentzat eta nire sei seme-alabentzat gordeko dut. Bai, sei; ez gehiago, ez gutxiago. Ahal bada hiru neska eta hiru mutil. Gure familian bezala. Euri asko egiten duen lekuren batean biziko gara, eta zelai berde batean eraikiko dugu etxea, animalia asko dauden zelai berde batean.* Eta aitak esaten zidan gogor entrenatu beharko nuela gauero hori guztia lortu ahal izateko, hemezortzi urterekin salto egin ahal izateko. Aske izateko. Eta nik baietz, aitatzat. Eta muxu ematen zidan bekokian. Eta amaren begiak ikusten nituen, ate ondolik zelatan, distiratsu. *Maite zaituztet. Guk ere maite zaitugu. Ondo lo egin.*

Sinpleak dira pausoak: lau oinean hurbildu, hesia igo eta salto! Eta gero, korrika egin. Atzera begiratu gabe korrika egin. Aitarekin gauero-gauero errepasatzen nituen etxe- atarian, behin eta berriz. Astero-astero adreilu bat gehitzen zion igo beharreko harresiari. Etxeari lau oinean hamar buelta eman, gero eta handiagoa zen harresia igaro, eta leher eginda ikusten ninduen arte korrika eginarazten zidan. Batzuetan, amorruren amorruez, gorrotoa sentitzen nuen, egia esan. Baina banekien aitatzko nire onerako ari zela. Banekien inork baino gehiago desio zuela nik milaka auditorio jendez betetzea eta sei seme-alaba zelai berdeko etxean zoriontasun betean haztea.

Hori guztia gaurkorako. Gaurkoa ondo ateratzeko. Lau oinean 12 metroko hesira hurbildu, jende artean 12 metroko hesia igotzea lortu, 12 metroko hesitik behera salto egin eta lasterketa amaigabe bati ekiteko. Horrela ez du horren sinplea ematen. Baina badakit badezakedala. Zerbaitetarako balio izango zuen gauero-gauero izerdi-patsetan ohera sartzeak, nire lagunak plazan ezkutaketetan jolasten ari ziren bitartean. Hala espero dut, behintzat.

Ilundu da zerua. Guztiz belztu da. Orain ikusten dut nire bidelagun izango den ilargia. Hastera doa joko. Lehen pausoa: lau oinean hesira hurbildu. Hori izango da errazena. Azkar egin behar dut.

Aitak eman zidan bidean ikusiko nuen jendetzaren berri, baina inori jaramonik ez egiteko esan zidan. Horrelako momentuetan ez omen dira lagunak komeni. Neurekoia izan behar omen dut. Ba omen daki ez dela erraza izango, jende asko hurbilduko zaidalako. Baina ez omen diot inori jaramonik egin behar. Horixe egiten ari naiz. Ez dut inor bakarrik ikusi; taldetxoetan daude guztiak. Oso bakarrik sentitu naiz, baina aitak dioen moduan, burua hotz eduki behar dut gaur gauean. Oso hotz.

Hesira gerturatzeko ari naiz. Oraindik ez dut ikusten, baina giroan nabari da hortxe behar duela. Jendea ez dabil jada kantari. Ez da txintik entzuten; kilkerren doinu lasaigarria bakarrik. Baina hori ez da nahikoa sabelean ditudan tximeletak lasaitzeko. Tximeletak baino gehiago, elefanteak dirudite gaur. Edo dinosauroak. Besteen aurretik noala uste dut. Hori ona da. Hesira iristen naizenean izkina batean ezkutatu eta iskanbila hasi aurretik amak prestatu didan mokadutxoak jango dut. Energia emango omen dit amaren opil goxoak. Gaur gauean beharko omen dut, inoiz baino gehiago. Gainera, normalean baino marrubizko marmelada gehiago jarri omen dio. Are energia gehiago emateko. Eta ondo ateratzen ez bada, azken hatsa aho-zapore onarekin emateko. Azken hori hitzez esan ez didan arren.

Izugarri goxoa zegoen amaren opila. Inoiz jan dudan marrubizko opilik goxoena, beharbada. Edo, beharbada, egoerak bihurtu du opila inoiz jan dudan marrubizko opilik goxoena. Badator jendea. Ez dut inor ikusten, baina badakit badatozela. Segundo gutxitan ekingo diot bigarren pausoari. Denetan zailenari, eta erabakigarrienari. Hesia igotzeari. 12 metroko hesizarra igotzeari.

Lehen alanbre-hotsarekin batera hasi da guztia; fokuen argi itsugarria, sirena-hots burrunbatsua eta polizien tiro-hots beldurgarriak. Baina nik banuen horren guztiaren berri. Ez nau sorpresaz harrapatu. *Gertatzen dena gertatzen dela, zu beti aurrera. Inoiz ez zalantza egin. Ez gelditu. Beti aurrera.* Horiek izan dira aitak esan dizkidan azken hitzak, inoiz ikusi dugun ilunabar zoragarrienean bakarrik utzi aurretik. Eta muxu eman dit kopetan. Gauero bezala.

Beraz, robot bat legez noa hesian gora, segundo erdi batez ere gelditu gabe, zalantza egin gabe. Badakit edozein unetan harrapa nazaketela. Badakit tiro egin diezadaketela. Eta bertan hil nazaketela. Baina ezin dut horretan pentsatu. Orain ez. Nahikoa denbora izan dut iraganean

horretarako. Gero eta gertuago daukat hesiaren punta. Zerura begira noa. Ilargi bete dut gidari. Ez dut egoeraz jabetu nahi, ez dut iskanbilaren parte izan nahi. Horrela, beharbada, ez dira nire presentziaz ohartu ere egingo. Ikusezina izango naiz. Beharbada. Ez. Badakit bertako edozein bezala ikus nazaketela, harrapatu nazaketela eta tiro egin diezadaketela. Horregatik noa robot bat legez.

Hesiaren punta. Pausorik zailenaren zatirik zailena. Argazki kameran argi-izpiak, polizien tiroak eta hesiaren arantzak. Baina banuen horren guztiaren berri ere. Ondo erakutsita etorri naiz. Zati hau azkar pasatzean dago gakoa. Etsaiek gu itsutzea dute helburu, sorpresaz harrapatzea, eta segundo batzuez mugi ezinik egotea. Horregatik egin behar da azkar. Sorpresaz harrapatu nahi gaituztenak sorpresaz harrapatzeko.

Ezker eskua puntan jartzearekin batera eraman dut eskuin hanka beste aldeko hesira. Bi hesien artean ia-ia nire garaierako distantzia dago, baina horretarako ere oso prestatuta etorri naiz. Izan ere, ballet dantzariak "espageta" ondo baino hobeto egiten jakin behar dute, eta zerbaitetarako balio izan didate txikitan nire gelan saiakerak egiten pasatako orduak.

Baina eskuin hanka beste aldera eramaterakoan, arantza artean trabatuta geratu zait galtza. Tira egin diot, nire indar guztiarekin tira ere. Ezin dut segundo bat ere galdu. Lortu dut halako batean hanka beste hesira igarotzea, baina galtzen erdia hesiaren arantzetan kateatuta geratu da. Amak jositako mahoizko galtza urdinen erdia. Gorantz begiratu dut. Ez da hesian kateatuta dagoen galtza-zati bakarria. Ez naiz kuleroen eskuineko zatia bistan daraman neska bakarria.

Segundo erdiz egon naiz galtza-zatiari begira, eta begirada jaitsi dudanean, ohartu naiz arantzek ez dutela galtza bakarrik zauritu: odoletan daukat eskuineko belauna. Odol- tanta potolo bat abiatu da metalezko hesian behera. Eta orduan konturatu naiz nirea ez dela hesian behera abiatu den odol-tanta bakarria; odol-tanta potoloz josita dagoela 12 metroko hesitzarra; belaunekoak baino larriagoak diren zauriz josita dagoela hesian dagoen jendea; eta tiroz...

Masailak sutan sentitzen ditut. Blokeatu egin naiz. Eta nire buruarekin haserretu. Ezin naiz blokeatu. Hotzean pentsatu behar dut. Neurekoia izan behar dut. Ezin dut segundo laurden bat ere galdu. *Gertatzen dena gertatzen dela, zu beti aurrera. Inoiz ez zalantza egin. Ez gelditu. Beti aurrera.* Zerbaitengatik zihoen hori aitak. Zerbait zekien seinale. Berriz ere nire burbuilan sartu behar dut. Ezin diet jaramonik egin nire hanken azpian isiltasun zirrargarri batean murgilduta dauden gorpuei. Ez dut horietako bat izan nahi. Ez naiz horietako bat izango. Ni ballet dantzaria izan behar naiz, milaka auditorio jendez betetzen dituzten horietakoa.

Klik. Berriz ere burbuilan. Ni bakarrik. Hirugarren pausoa: salto! Erraza. Aitarekin entseatzen nuenean gehien gustatzen zitzaidan pausoa izaten zen hau. Dibertigarriena zen, baina beti aitaren besoak beheran nire zain izaten nituen, badaezpada. Orain, lurreratzean norbaiten besoak topatzen baditut, ez dira aitaren beso maitagarriak izango, nire ametsa zapuztuko duenaren besoak baizik.

Baina hotzean pentsatu behar dut. *Hesiaren erdiraino iritsi, eta 6 metrora zaudenean, salto!. Eta nola dakit noiz nagoen 6 metrora? Metro erdiko 12 pauso eman behar dituzu. Metro erdia hesiaren 20 karratutxo dira. Baina ez galdu denbora kontuak ateratzen. Intuizioak esango dizu. Neska argia zara.* Metro erdiko 12 pauso. Neska argia naiz. Badakit noiz egin behar den salto. Intuizioak esango dit.

Iritsi naiz hesiaren erdira. Badakit salto egin behar dudala. Baina salto egiteko leku egokia aurkitu behar dut. Eta une egokia. Ez dut aitarenak ez diren beste inoren besoetan lur hartu nahi. Ez horixe. Eskuinerantz mugitu naiz apur bat. Guardietako bat niri begira dagoela irudit

zait. Bai. Goitik behera begiratu dit. Nire ile beltz kizkurraren puntatik hasi, begi beldurtiak igaro, beso gihartsuetan barrena jarraitu, eskuineko hanka biluzian geldialdi bat egin, eta oinetakoen puntan amaitu du. Gero, ez ikusiarena egin du. Hori iruditu zait. Baina inoizko hotzikararik handiena sentitu dut nire oinetakoen puntatik nire ile beltz kizkurraren puntara, guardiaren begiradaren kontrako norantzan.

Zortea izan dut. Izugarrizko zortea. Guardiak bertan hil nintzakeen, baina ez ikusiarena egitea erabaki du. Guztiak ez dira horren etsaiak, antza. Hesia zeharkatzeko aukera bat eman dit. Aske izateko aukera. Milioika auditorio jendez betetzen dituzten horietako ballet dantzaria izateko aukera, 12 seme-alaba zelai berdeko etxean haztekoa. Eta orain, aukera hori baliatu behar dut. Gero eta gertuago ikusten dut askatasuna.

Hiru, bi, bat... Salto!!!! Oso ongi, maitea! egunetik egunera hobeto egiten duzu. Orain, segi korrika nik esan arte. Hiru, bi, bat... Salto! Egin dut! Listo! Espainiar lurra! Nire etorkizun perfektuaren lurra. Nire ametsak errealitate bihurtuko dituen lurra.

Baina iskanbila honetatik atera behar dut lehenik. Oraintxe bihurtu nahiko nuke ikusezin. Hesiaren alde honetan ez dago bestean bezalako jendetzarik, eta segundo gutxi barru ohartuko dira kuleroak agerian zeramatzan neskak hesia igarotzea lortu duela. Korrika hasi naiz, berriz ere, robot bat legez; guardien autoen artetik noa, burua makurtuta eta sorbalda ezin gehiagoan okertuta, inork ikus ez nazan. Uste dut lehen goitik behera niri begira geratu den guardiak berriz ikusi nauela. Ez dakit. Ezin dut horretan pentsatu. Hankak sentitzeari uzten diodan arte egin behar dut korrika, atzera begiratu gabe. Ahal dudan azkarren. Aita atzetik agintzen izango banu bezala.

Auzoan egiten genituen lasterketetan beti izaten nintzen irabazle. Mutil guztiek inbidiaz begiratzen zidaten, beraiek baino gehiago nintzela onartu ezinean bezala. *Pikati batzuk zarete!* Halaxe esaten nien nik, guztiz ahaldunduta. Ez dut uste gaur lasterketa irabazten diodan guardiari hori oihukatzeko denborarik izango dudarik.

Pixkanaka guardien autoak atzean uzten ari naizela uste dut. Kilometro bat egina izango dut jada. Baina asko daukat aurretik oraindik. Hauspoz ez dut inongo arazorik, baina belauneko zauria gaiztotzen ari zaidala uste dut. Praken ezker aldea erantzi eta zauriaren inguruan korapilo bat egin beharko nuke, baina ez daukat horretarako astirik. Segundo batek dena alda dezake. Korrika jarraitzen dut.

Espainiako lurra harritsuagoa da Afrikakoa baino. Afrikan harea eta zikina besterik ez dago lurrean. Ezpain-ertzean irribarre txiki bat ateratzen ari zaidala sumatzen dut. Tunelaren amaieran argi izpi txiki bat ikusten dut, bai. Baina jakin badakit edozer gauza gerta daitekeela oraindik. Eta horregatik, korrika jarraitu behar dudala.

Korrika jarraitzen dut. Nekatzen hasia nago, ordea, eta ez dut ezer ikusten gauaren ilunean. Ilargi betea ere bistaz galdu dut jada. Beharbada eguna argitzear egongo da, nork daki. Izugarrizko azkura daukat belaunean, eta hankak indarrrik gabe geratzen ari zaizkit. Desorientatuta bezala nago, baina korrika jarraitzen dut, aitaren esana betez, beti aurrera... Klonk! Zerbaiten kontra jo dut! Ez nago seguru zer den. Beharbada, zuhaitz bat izango da; aitak beti esaten dit Espainiar lurretan zuhaitz asko daudela. Edo, beharbada, kale-argi horietako bat; Espainiar teknologia oso aurreratuak omen dituzte. Ez. Ez da horrelako ezer. Ez dut jada belauneko zauria sentitzen. Berriz ere, hotzikara ikaragarri batek zeharkatu du nire gorputza, nire oinetakoen puntatik nire ile beltz kizkurraren puntara. Gizonezko baten hankak dira; gizonezko baten hanka beldurgarriak, bota erraldoi batzuen gainean.

Hesian zeudenen antzeko foku bat sentitu dut niri so. Ez naiz ausartzen burua altxatzen; bi hanken artean gordeta daukat. Uste dut zerbait esaten ari dela. Belarriak estutzen dizkidate hankek. Berriz ere blokeo-egoera. Baina jada ezin dut atzera begiratu gabe korrika segi. Ezin dut hotzean pentsatu. Ezin dut neurekoia izan. Ezin dut milaka antzoki jendez betetzen dituzten horietako ballet dantzaria izan. Dena pikutara.

Ukitu egin nau. Oso behatz leunak dauzka. Eta hotzak. Hori ez da seinale ona. Ez dakit nola jokatu. Jada ez dago atzera bueltarik, beraz burua altxatu eta gizonaren begietara begiratu dut. Fokuaren antzeko esku-tresna horrek erabat itsutu nau. Lurrera begira jarri du fokua, eta altxatzen lagundu dit. Lasaitasuna helarazi dit. Ez dakit zergatik. Uste dut hau ez dela gaiztoa. Ez dela etsaia. Uste dut salbu nagoela. Beldurra ematen dit hori pentsatzeak ere. Ez nago seguru.

Gizonak nire belaunari begiratu dio. Esku-ahurra ahoaren parean jarri, eta listua bota du; gero, nire zauriaren gainean jarri du eskua. Apur bat erretzen du, baina badakit sendatu egingo dela. Bai. Badakit hau zintzoa dela. Badakit lortu dudala. Aske naizela.

Irribarre zalantzati bat egin dit gizonak, eta nik ezin izan diot negarrari eutsi. Bere beso gihartsu bezain lasaigarrietan hartu eta ibilgailu erraldoi batean sartu nau. Ni bezalako beste neska bat dago hemen. Berak ere bistan dauka eskuineko kulero-zatia. Uste dut orain baietz, orain egin ditzakedala lagunak. Amak jositako galtzen ezkerreko poltsikotik inoiz probatu dudan marrubizko opiltxorik onenaren erdia atera, eta bi zatitan banatu dut. Laurden hau lehen jan dudan zatia baino are hobea dago.

Aitari kontatu nahi diot dena. Eta amari. Eta anai eta arreba guztiei. Eta nire lagunei. Eta hainbestetan amestutako bizitzara salto egitera nindoala eta salto egin ostean korrika nindoala ez ikusiarena egin duen guardiari. Denei.

Izango dut denbora. Orain hasten da dena.